Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2023ko maiatzaren 25a, osteguna — 100 — Jueves, a 25 de mayo de 2023

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## PASAIAKO UDALA

*Behin betiko onarpena alegaziorik aurkeztu ez delako.*

Udalbatzak, 2023/02/28(e)ko osoko bilkuran, Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga arautzen duen Ordenantzaren aldaketei hasierako onarpena emateko erabakia hartu zuen. Erabaki hori jendaurrean jarri zen, hogeita hamar eguneko epean, iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik hasita (2023/03/16), ordenantza aztertu, eta egoki iritzitako erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Jendaurreko epea eta aldez aurreko entzunaldia amaituta, ez da inolako erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu, Udal Idazkaritzak emandako ziurtagirian ageri denez; beraz, erabaki hori behin betiko onartutzat jotzen da, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz. Beraz, osorik argitaratzen da artikulu horretan ezarritakoa betetzeko, eta aipatutako ordenantza indarrean sartzen da, bertan aurreikusitako epea igaro ondoren.

Erabaki hau behin betikoa da administrazio-bidean, eta haren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik hasita, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 18. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Hala ere, eta aurreko 14.1 artikuluan ezarritakoa gorabehera, interesdunak aukeran izango du erreklamazio ekonomiko-administratiboa aurkeztea Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboan, administrazioarekiko auzibidera jo aurretik, hilabeteko epean, dagokion ordenantza Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik aurrera.

Udalbatzak erabaki du Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren Gaineko Zerga Arautzen duen Ordenantza fiskalaren 5. artikuluko, 3. ataleko lehenengo paragrafoa aldatzea, idazketa berria hau delarik:

*5. artikulua.*

3. Lursailak eskualdatzen direnean eta jabaria mugatzen duten gozamen-eskubide errealak eskualdatzen edo eratzen direnean, heriotza dela-eta irabazi-asmoz, kuota osoaren % 50eko hobaria izango dute zuzeneko ondorengoek eta adoptatuek, ezkontideek edo izatezko bikoteak arautzen dituen maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratutako izatezko bikoteek, aurrekoek eta adoptatzaileek. Hobari hori banaka aplikatuko zaie eskualdatutako ondasuna edo eskubidea beren eranskinekin ohiko etxebizitza dela egiaztatzen duten jaraunsleei.

Pasaia, 2023ko maiatzaren 15a.—Izaskun Gómez Cermeño, alkatea. (3609)

## AYUNTAMIENTO DE PASAIA

*Aprobación definitiva al no haberse presentado alegaciones.*

Habiéndose expuesto al público el acuerdo adoptado por el Pleno de la Corporación, en sesión de fecha 28/02/2023 de aprobación inicial de la modificación de la Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto sobre el Incremento de Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana, por plazo de treinta días, a contar desde el día siguiente a la publicación del anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa que tuvo lugar con fecha 16/03/2023, para que el mismo pudiera ser examinado y poderse presentar las reclamaciones y sugerencias que se considerasen oportunas.

Y resultando que, finalizado el referido plazo de exposición al público y audiencia previa, no se ha presentado reclamación o sugerencia alguna, según consta en el certificado emitido por la Secretaría municipal, se considera definitivamente aprobado dicho acuerdo de conformidad con lo establecido en el artículo 16 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, por lo que se publica íntegramente a efectos de dar cumplimiento a lo preceptuado en dicho artículo, entrando en vigor la mencionada ordenanza, una vez transcurrido el plazo previsto en la misma.

Contra el presente acuerdo, que es definitivo en vía administrativa, se podrá interponer recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente al de publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, de conformidad con lo establecido en el artículo 18 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa.

No obstante e independientemente de lo establecido en el Artículo 14.1 precedente, el interesado podrá optar por interponer, con carácter potestativo y previamente a la vía contencioso-administrativa, reclamación económico-administrativa ante el Tribunal Económico-Administrativo Foral en el plazo de un mes, a partir de la publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de la Ordenanza correspondiente.

El pleno municipal ha acordado la modificación del primer párrafo del apartado 3.º del artículo 5.º de la Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto Sobre u Incremento de Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana, siendo su nueva redacción:

*Artículo 5.*

3. En la transmisión de terrenos y en la transmisión o constitución de derechos reales de goce limitativos del dominio, realizados a título lucrativo por causa de muerte, gozarán de una bonificación del 50 % de la cuota íntegra, los descendientes directos y adoptados, los cónyuges o parejas de hecho constituidas con arreglo a la Ley 2/2003 de 7 de mayo reguladora de las parejas de hecho, los ascendientes y adoptantes. Se aplicará esta bonificación individualmente a los herederos que acrediten que el bien o el derecho transmitido con sus anejos, es su vivienda habitual.

Pasaia, a 15 de mayo de 2023.—La alcadesa, Izaskun Gómez Cermeño. (3609)

EK\CV GAO-I-2023-03609